



ARAIA, ASPARREN UDALERRIAN, BELAR ARTIFIZIALEKO FUTBOL ZELAI BAT ERAIKITZEKO OBREN KONTRATAZIORAKO, PROZEDURA IREKI ETA ESLEIPEN IRIZPIDE ANITZEN BIDEZ, BALDINTZA ADMINISTRATIBO ZEHATZEN ORRIA

I.- KONTRATUAREN KONFIGURAZIO OROKORRA

1.- KONTRATUAREN BEHARRAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreikusitako kontratu honen izatezko arrazoia da belar artifizialeko futbol-zelai bat, ekipamenduaz eta urbanizazioaz, eraikitze obrak egin beharra dagoela, aurrekoa, "Arrazpi Berri" erabilera anitzeko kiroldegia eraiki ondoren, erabilerarik gabe gelditu baita.

2.- PROZEDURAREN ETA ESLEIPEN IRIZPIDEAREN HAUTAKETAREN JUSTIFIKAZIOA.

SPKLTBren 109.4., 138.2. eta 157. artikuluetan xedaturikoaren arabera, prozedura irekia eta zenbait esleipen irizpiderekin zehazteko arrazoia da enpresari gaitu orori aukera ematea proposamenak aurkezteko eta kontratua proposamen onuragarrienari esleitzeko, onuragarriena ikuspuntu ekonomikotik eta instalazioan proposaturiko hobekuntzak ere kontuan hartuta.

II. BALDINTZA ADMINISTRATIBOAK

XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Baldintza Administratiboen Orri (BAO) honek arautzen duen kontratuaren xedea da belar artifizialeko futbol-zelai bat, instalazioaz eta urbanizazioaz, eraikitze obrak egitea, Ramón Ruiz-Cuevas arkitektoak (1813 zk. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoa-Araban) eta José Ignacio de Rosendo, Gerardo Molpeceres, Araitz Eriz eta Joseba Aranzábal laguntzaileek idatzitako Egikaritze Proiektuaren arabera.

Aipatu proiektuak barne harturiko obrez gain, "Argiztapena eta argindarra" eranskina ere gauzatuko da, argiztapen-dorreen ezarpenari buruzkoa.

CPV-2008: 39293300-5 Zelai artifiziala



Zenb./Núm.:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Instalazio berriak eraikitzeko egin beharreko obrak ondoko lursailetan egingo dira:

- 2. Poligonoko 1681. lursaila, udalarena.
- 2. Poligonoko 2079. lursaila, udalarena.
- 2. Poligonoko 1863. lursaila, Udalaren esku azalera nahikoan, lursailen aurretiazko okupazio-aktaren arabera, 2017ko apirilaren 5ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 188. artikulua arabera.
- 2. Poligonoko 1864. lursaila, Udalaren esku azalera nahikoan, lursailen aurretiazko okupazio-aktaren arabera, 2017ko apirilaren 5ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 188. artikulua arabera.

Proiektuak, berau osatzen duten dokumentuekin batera, horien artean Baldintza Teknikoen Orria, Baldintza Administratibo Zehatzen Orri hau, argindarrari eta argiztapenari buruzko eranskin-aurrekontua, kontrata formalizatzeko dokumentua eta esleipendunaren eskaintza, kontratuzko izaera edukiko du.

2.- KONTRATUAREN BIDEZ ASE BEHARREKO BEHAR ADMINISTRATIBOA.

Baldintza-orri honen xede den kontratua gauzaturik, ondoko beharra aseko da: hirirako kirol-instalazioak ezartzea eta osatzea, nahikoa gaitasunarekin egungo biztanleriaren eskariei erantzuteko, halako instalazio-mota bat ezartzea, besteak beste.

3.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA KONTRATUZKO IZAERADUN DOKUMENTUAK.

Egin beharreko kontratua obra-kontratu administratiboa da, SPKLTBren 6. eta 19. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta alde biak espresuki egongo dira baldintza-orri honetan eta dagokion proiektu teknikoan ezarritakoaren mende.

Baldintza-orri honetan eta baldintza teknikoan orrian bereziki aurreikusi gabekoari dagokionez, kontratua ondokoaren arabera arautuko da: SPKLTB onartzen duen 3/2011 Legegintzako Erre Dekretua, SPKL partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra (HAKLAO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, eta gainerako kontratu-araudi aplikagarria, eta, bestela, zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratu honen behin betiko pertsona fisiko edo juridiko esleipenduna espresuki egongo da ondoko arloetan indarrean den legeriaren mende: zerga-arloa, lan-arloa eta Gizarte Segurantzza, aukera-berdintasuna, diskriminazio eza, irisgarritasuna eta oztopoen ezabaketa, segurtasuna, lan-arriskuak eta laneko higiena, bai eta zuzenean edo zeharka kontratu honen xedean eragiten duten arau guztien mende ere; hala,



Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

kontratistak bete behar horiek urratuko balitu, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.

Kontratuzko dokumentuak bat ez baletoz, eta auzia ezin balitz ebatzi haien interpretazio sistematikoa eginez, baldintza administratibo zehatzen orrian ezarritakoa gailenduko da, egitatezko errakuntza edo oker aritmetiko nabarmena dela ondorioztatu ezean.

Baldintza-orri honek ez ezik, dokumentu hauek ere kontratuzko izaera izango dute: Baldintza teknikoaren orriak, planoek, proiektuaren memoriak (Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorren 128. artikuluan ezarritako edukari dagokionez), kontratazio-organoak onarturiko lan-programak, prezioen taulek eta kontratua formalizatzeko dokumentuak.

4.- OINARRIZKO ESLEIPEN AURREKONTUA, GUTXI GORABEHERAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.

Oinarrizko Esleipen Aurrekontua, azpitik, Oinarrizko Proiektuaren Kontratagatiko Egikaritze Aurrekontua eta onarturiko Egikaritze Aurrekontua gehi argindarrari eta argiztapenari buruzko eranskina, 41.456,64 €-koa, kontratuaren gutxi gorabeherako balioaren arabera, gehi 87.035,89 € BEZi dagozkionak; guztira, **501.492,53 €**, 2017ko aurrekontuari kargatuko den aurreikuspenarekin.

Eskaintzan, Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) aparteko partida batean adieraziko da.

Oinarrizko esleipen-aurrekontua baino aurrekontu handiagoa aurkezten duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira.

Kontratuaren prezioa izango da kontratazio-organoak erabakitako esleipenaren ondoriozkoa, esleipendunak oinarrizko esleipen-aurrekontuaren arabera egindako eskaintza ekonomikoarekin bat eginda.

Lizitatuzaileek egiten dituzten eskaintzetan zein kontratuaren esleipen-prezioan, barne hartuzat joko dira kontratuzko dokumentuen eta indarrean den legeriaren arabera esleipendunaren konturakoak diren balorazio-faktore eta gastu guztiak, hala nola jarduera egiteagatik egoki litezkeen kontzeptuak zergapetzen dituzten zergak, alde batera utzi gabe lizitatuzailearen bete beharra aparteko partida batean erantsi beharreko Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) jasotzeko.

5.- OBREN FINANTZAKETA ETA AURREKONTUZKO KREDITUA.

2017 ekitaldian aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago, 1/2017 kreditu gehigarriko espedientean jasotako aurrekontu-aplikazioaren bidez. Espediente hori kontratua esleitu aurretik onartu denez, behin betiko onartu beharko da, baliozkoa izan dadin.

6.- PREZIOEN BERRIKUSPENA



Zenb./Núm.:

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Ez dagokio.

7.- KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA.

Kontratua gauzatzeko epea LAU HILABETEKOA da, Zuinetaren Egiaztapen Akta formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera.

8.- KONTRATUGILEAREN PROFILA.

Udalaren kontratu-jarduerarekin loturiko informazioa herritarren eskura egon dadin ziurtatzeko, SPKLTBren 53. artikulua araber, eta alde batera utzi gabe beste publizitate-bitarteko batzuen erabilera, Udal honek Kontratugilearen Profila dauka, zeinetara Asparreneko Udalaren atari instituzionalaren bidez sartu ahal den: www.asparrena.eus, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kontratugile-plataformaren bitartez ere.

II **ESLEIPENERAKO BALDINTZAK**

9.- ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratuaren esleipena prozedura IREKI eta PREMIAZKO izapide bidez burutuko da.

Esleipena hainbat irizpide haztatuta egingo da.

Esleipena, prezioari soil-soilik begiratu gabe, orokorrean proposamen onuragarriena egiten duen lizitatzailari emango zaio, kontuan hartuta berau burutzeko irizpide objektiboak garrantzi eta haztapenaren arabera baloratuko direla, SPKLTBren 150. artikuluan ezarritakoa betez.

SPKLTBren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza-orri honen xede den kontratua ez da arau harmonizatupekoa izango.

10.- KONTRATUAREN ESLEIPENERAKO PUBLIZITATE GASTUEN GEHIENEO ZENBATEKOA, ESLEIPENDUNAK ORDAINDU BEHARREKOA

Esleipendunak lizitazioaren publizitate-gastuak ordaindu beharko ditu Gastu horien zenbatekoa 350,00 eurokoa izango da, gehienez ere.

11.- UKO EDO ATZERA EGINEZ GERO ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK

Uko edo atzera eginez gero, SPKLTBren 155. artikuluan ezarritakoaren arabera, kalte-ordainak ordainduko zaizkio lizitatzaille bakoitzari izandako gastuak ordaintzeko, gasturik izan badute. Edozein kasutan, kalte-ordainen muga 350,00 euroan ezartzen da.

**ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)**



**Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)**

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

12.- BERME GALDAGARRIAK

Behin-behinekoa: Ez da eskatzen.

Behin betikoa: Behin-behineko esleipendun ateratzen den lizitatzailleak kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 5eko bermea ezarri beharko du, BEZ alde batera utzita.

Berme hori jartzeko epea bost egun baliodunekoa izango da, 20.6. klausulan aipatutako eskakizuna jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, SPKLTBren 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu dela egiaztatzeko bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabil daitezke. Baldintza hori lizitatzailleari egotz dakizkikeen arrazoiengatik betetzen ez bada, Udalak ez du esleipena bere alde egingo.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

13.- BALDINTZA ORRIAREN ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO IRAGARKIAREN ALDIBEREKO ERAKUSKETA

Apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuaren 122. artikulua 2. idaztiak dioenaren arabera, Baldintza Administrazio Berezien Orria eta lizitazioaren iragarkia batera argitaratuko dira. Baldintza-orriaren kontrako erreklamaziorik egin nahi izanez gero, iragarkia argitaratu eta hurrengo 4 egun baliodunetan aurkez daitezke.

Epe horren barruan erreklamazioen bat egingo balitz, lizitazioa bera eta proposamenak aurkezteko epea gerarazi egingo lirarteke. Horren ondorioz, erreklamazioen ebazpena eman eta hurrengo egunetik hasiko litzakete geratzen den denbora kontatzen.

14.- DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA

Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Administrazio honen Idazkaritza Nagusian (Asparreneko Udaletxea, Herriko Enparantza 1, Araia) aztertu ahal izango da, 9:00etatik 14:00etara, egun baliodunetan, lizitazio honen iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Kontratazio honi dagozkion baldintza-orriak eta agiriak udalaren webguneko kontratatzailearen profilean ere eskuragarri egongo dira (www.asparrena.eus).

15.- KONTRATATZEKO GAITASUNAREN EGIAZTAPENA

Pertsona natural zein juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, parte har dezakete lizitazio honetan, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeke debekuetan sartuta



Zenb./Núm.:

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : asparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

ez badaude eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badute.

1. Enpresariaren **jarduteko gaitasuna** egiaztatzeko modua:

a) Pertsona juridikoen jarduteko gaitasuna honako agiri hauekin: eraketa-eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sorrerako egintza, non ageriko diren bere jarduera erregulatzen duten arauak, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, egoki den erregistro publikoan, pertsona juridikoaren ezaugarrien arabera.

b) Espainiarrak ez izan baina Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalak diren enpresariaren jarduteko gaitasuna, diharduten Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan egindako inskripzioaren bidez, edo bestela, aurkeztuz zinpeko aitortpena edo ziurtagiri bat, arauzko terminoetan egina, aplikaziozkoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

c) Atzerriko gainerako enpresariak, Espainiak dagokion estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostenarekin, edo, bestela, enpresak helbidea duen lurraldeko Bulego Kontsularrak egindakoarekin.

2. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan arauturiko **kontratatzeko debeku**ren batean **sartuta ez egotea** honelaxe frogatu ahal izango dute enpresariak:

a) Lekukotza judizialaren edo administrazio-ziurtapenaren bidez, kasuen arabera; eta dokumentu hori ezin badu agintaritza eskudunak egin, haren ordezkari gisa aurkeztuz ardura-aitorpen bat, administrazio-aitorpena, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean egindakoa.

b) Europar Batasuneko estatuetako enpresen kasuan, dagokion estatuko legerian aurreikusten bada aukera hau, haren ordezkari gisa aurkeztu ahal izango da ardura-aitorpen bat, agintaritza judizial baten aurrean egindakoa.

3.- Enpresariaren klasifikazioa.

Lizitazio honetan parte hartzeko enpresariak honako klasifikazioa eduki behar du:

- G taldea (Viales y pistas) 6 azpitaldea (obras viales sin calificación específica) D kategoria

- I taldea (Instalazio elektrikoak) 01 azpitaldea (Argiteria, argiztapena eta argi-balizak), D kategoria

4.- Enpresariaren kaudimena:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Proposamena egiten duen pertsonaren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko kontratistaren sailkapen-agiria (aurreko atalean zerrendaturiko talde, azpitalde eta kategorietan) aurkeztuz egiaztatuko da.

Sailkapen-ziurtagiriarekin batera, edozelan ere, lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, sailkapenari buruzko datuak ez direla aldatu ziurtatuz.

16.- PROPOSAMENEN ETA DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOAREN AURKEZPENA

Eskaintzak Asparreneko Udaletxean aurkeztuko dira (Herriko enparantza 1, Araia), jendea artatzeko ordutegian, lizitazio-iragarkia ALHAOn eta kontratatzailearen Profilean www.asparrena.eus web-gunean agertu eta, hurrengo egunetik hasita, hamahiru egun balioduneko epean.

Proposamenak postaz edo faxez aurkeztu ahalko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako tokietan.

Proposamenak posta bidez bidaltzen badira, enpresariak, batetik, justifikatu egin beharko du posta-bulegotik zein egunetan bidali duen; eta, bestetik, egun berean, iragarri behar dio kontratazio-organoari, fax bidez, bidali duela eskaintza, espediente-zenbakia emanda, kontratuaren xedearen titulu osoa jarrita eta lizitatzaillearen izenarekin.

Aipatu faxa hartu dela egiaztatzeko, udal idazkariak bertan eginbidea ezarriko du. Bi baldintzak betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko, baldin eta iragarkian adierazitako epearen bukaera-data iragan eta gero aurkezten bada proposamen hori. Edozein kasutan, aipatu data iragan eta hamar egun pasa eta gero, dokumentaziorik jaso ez bada, handik aurrera ez da onartuko.

Erabil daitezkeen baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen, bete behar dituzte, gainera, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak.

Lizitatzaille bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Ezin izango du, bestalde, beste batzuekin eraturako aldi baterako elkartean inongo proposamenik izenpetu, baldin eta indibidualki aurkeztu badu berea edo beste aldi baterako elkarteren batean agertzen bada. Arau hauetakoren bat hautsiz gero, berak izenpetutako proposamen bat bera ere ez da onartuko.

Proposamen bat aurkezteak esan nahi du enpresariak baldintzarik gabe onartzen dituela Agiri honetako baldintzak.



Zenb./Núm.:

**ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)**

**Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)**

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● ☎ 945 304006 ● Faxe 945 314507
● ✉ Elektronikoa. : asparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Lizitazioan parte hartzeko eskaintzak hiru gutun-azal itxitan aurkeztu behar dira, lizitatuak sinatuta eta jakinarazpenak egiteko helbidea jarrita, gutun-azalaren izenarekin eta esaldi hau gainean duela: "Proposamena, ARAIAN FUTBOL ZELAIA ERAIKITZEKO lanak kontratatzeko lizitaziorako". Gutun-azalen izenak hauek dira:

- «A» gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.
- «B» gutun-azala: Balio-judizioen arabera azter daitekeen dokumentazioa.
- «C» gutun-azala: Proposamen ekonomikoa eta automatikoki kuantifika daitekeen dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzean sartu behar diren agiriak originalak edo kopia kautotuak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Gutun-azal bakoitzean ondorengo agiri hauek sartu behar dira, beren zerrenda zenbakidunarekin batera:

«A» GUTUN AZALA

DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

a) Enpresaren eskaturiko klasifikazioa frogatzen duten agiriak.

b) Administrazioarekin kontratatzeko legeko baldintza guztiak betetzen dituela agerrarazten duen lizitatuaren Erantzukizun Adierazpena.

Hurrengo ereduaren arabera aurkeztuko da:

«ERANTZUKIZUN ADIRAZPENA EGITEKO EREDUA

_____ jaunak/andreak, jakinarazpenetarako helbide honekin: _____, _____
kalea, _____ zk.;; _____ NAN zenbakia duenak, _____ entitatearen izenean (IFK:
_____), _____ lizitazioan parte hartzeko asmoz, _____(a)ren aurrean

BERE ERANTZUKIZUNPEAN, HONAKOA ADIRAZTEN DU:

LEHENA. ARAIAN FUTBOL ZELAI BAT ERAIKITZEKO lanen kontratazioan parte hartuko duela.

BIGARRENA. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 146. artikulua lehenean ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela ARAIAN FUTBOL ZELAI BAT ERAIKITZEKO kontratuaren esleipenduna izateko, eta zehazki:

**ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)**



**Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)**

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

- Izaera juridikoa eta, bere kasuan, ordezkaritza duela.
- Enpresak klasifikazio egokia duela eta beharrezko kaudimen ekonomiko, finantzarioa, teknika edo profesionala duela.
- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak.
- Edozein arloko epaitegi eta auzitegi espainiarren menpe jartzen dela kontratua dela-eta zuzenean edo zeharka sortu daitezkeen gorabeheretarako; eta, era berean, uko egiten diola, dagokionean, eskatzaileari legokiokeen atzerriko barruti jurisdikzionalari. (Atzerriko enpresen kasuan)
- Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa hurrengoa dela _____.

HIRUGARRENA. Kontratuaren esleipendun izateko proposatuz eta edozein momentuan eskatuz gero, aitorpen honen bigarren atalean ezarritako agiriak dituela eta haien balioa egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela.

Eta horrela gera dadin, sinatzen du honako adierazpen hau.

_____(e)n, 2017ko _____ren ____ (e)(a)n. Aitortzailearen sinadura. Sin.: _____»

«B» GUTUN AZALA

BALIO JUDIZIOEN ARABERA AZTER DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA

Balio-judizioen arabera azter daitezkeen irizpideak baloratzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztuko dira gutun-azal honetan.

Zehazki, ondokoak aurkeztu beharko dira:

- Proposaturiko zelai artifizialaren ezaugarrien dokumentazio tekniko egiaztagarria, barne hartuta FIFAk homologatutako laborategi baten Txostena, zeinak ziurtatuko duen proposaturiko zelai-sistemak FIFA 2 STAR (FIFA Quality Concept for Football Turf) irizpideen arabera ziurtagiria duela eta UNE 15330-1 araua betetzen duela. Dokumentazioak espezifikotasun-maila nahikoa izan beharko du eskaintza balio-judizio baten mendeko irizpideen arabera baloratu ahal izateko.

- Txosten edo memoria teknikoa, zeinetan zehaztuko diren egin beharreko jarduketak, horien sekuentzia, zelai artifiziala ezartzeko onarpen-irizpideak eta "Egikaritze-proposamen teknikoa" atalean baloratu beharreko gainerako alderdiak.



Zenb./Núm.:

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

- Proposatutako ekipamendu-hobekuntzen gaineko dokumentazio tekniko egiaztagarria, espezifikotasun-maila nahikoarekin baloratu ahal izateko eta, edonola ere, eskaintako hobekuntzen balioa egiaztatuta.

«C» GUTUN AZALA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA

a) Proposamen ekonomikoa.

Hurrengo ereduaren arabera aurkeztuko da:

« _____ jaunak/andreak, (jakinarazpenetarako helbidea: _____, _____ kalea, _____ zk.;, NA zenbakia: _____), _____ erakundearen izenean (IFK: _____) eta honako espediente honen berri izan duelarik: ARAIAN FUTBOL ZELAIAN ERAIKITZEKO lanen kontratazioa (prozedura irekia, eskaintza ekonomiko onuragarriena eta esleipen-irizpide batzuk); ALHAOren _____ zenbakian, _____ egunean, argitaratua eta, era berean, kontratzailearen Profilean; adierazten dut, batetik, ezagutzen dudala kontratuaren oinarri den baldintza-agiria eta, bestetik, osorik onartzen dudala, lizitazioan parte hartuz eta, era berean, konpromisoa hartuz kontratuaren xedea _____ euroko eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion _____ euroko zenbatekoan gauzatzeko zenbateko.

_____(e)n, 2017ko _____ren _____(e)(a)n. Lizitzailearen sinadura. Sin.: _____».

b) Automatikoki kuantifikatu beharreko balorazio-irizpideekin, prezioa ez bestelakoekin, loturiko dokumentuak:

- Obren berme-epealdia luzatzeko konpromisoa, urte-kopurua zehaztuta eta zelai artifiziala mantentzeko planak lagunduta, zelai artifizialezko eremuen mantentze-zerbitzua emateko gaituriko enpresa batek sinatua.

- Enpresa lizitzailean ISO 14001 –Ingurumen Kalitatearen Kudeaketa araua ezarri izan delako ziurtagiri ofiziala, indarrean, ondoko aplikazio-eremuarekin: “Kirol-ekipamenduaren diseinua eta garapena, ekoizpena, merkaturatzea eta ezarpena, eraikuntzazko zoladuraren, kirol-zoladuraren eta zelai artifizialaren merkaturatzea eta ezarpena eta zelai artifizialezko instalazioen mantentzea”.

17.- KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki abantailarik handiena duen eskaintza zein den erabakitzeko, esleipen-irizpide bat baino gehiago hartuko da kontuan:

A. Automatikoki balora daitezkeen irizpideak handitik txikira puntuatuko dira:



Kontratuaren esleipena egiteko honako irizpideak balioetsiko dira garrantziaren arabera:

A.1. Proposamenaren balorazio ekonomikoa eta bere justifikazio egokia, 35 puntu lortuko ditu eskaintza onuragarriena eta gainerakoak proportzionalki eta garrantzi handienetik txikienera baloratuko dira, honako formularen bitartez:

$$\frac{(\text{Baloratzen den eskaintza} - \text{Eskaintza onuragarriena}) \times 35}{\text{Eskaintza onuragarriena}} = \text{Diferentziala}$$

35 – Diferentziala = Baloratzen den eskaintza lortzen dituen puntuak

A.2. Obren berme-epealdiaren luzapena: 15 puntura bitarte.

Berme-epealdiaren arabera eman beharreko puntuazioa, gehigarria, kontratistak egindako obren kontserbazio- eta mantentze-egoera bikaina berma dezan, 3 puntukoa izango da, Baldintza-orri honetan aurreikusitako 5 urteko gutxieneko epealditik aurrera eskaintzen den urte gehigarri bakoitzeko, eta gehienez 15 puntu eskuratu ahal izango dira.

Atal hau baloratzeko, zelai artifiziala mantentzeko plan bat aurkeztu beharko da, zelai artifizialezko eremuen mantentze-zerbitzua emateko gaituriko enpresa batek sinatua.

A.3. ISO Ingurumen kudeaketari buruzko Kalitate-araua ezarri delako egiaztapena: 2 puntura bitarte.

Atal hau baloratzeko, ziurtagiri ofizial batez egiaztatu beharko da enpresa lizitatzailan Kalitate-arauak ezarri direla, ISO 14001 –Ingurumen Kalitatearen Kudeaketa, ondoko aplikazio-eremuarekin: “Kirol-ekipamenduaren diseinua eta garapena, ekoizpena, merkaturatzea eta ezarpena, eraikuntzazko zoladuraren, kirol-zoladuraren eta zelai artifizialaren merkaturatzea eta ezarpena eta zelai artifizialezko instalazioen mantentzea”.

B. Balio-judizio baten arabera haztatu beharreko irizpideak:

B.1. Zelai artifizialaren hobekuntza: 30 puntura bitarte.

Proposamenak osa daitezke izaera ekonomikoko betebeharrak gehiago norbere gain hartuta, proiektuan jasotako zelai artifizial motaren hobekuntzarekin lotuak. Edozelan ere, instalatu beharreko zelaia homologatuta egon beharko da eta FIFA 2 STAR (FIFA Quality Concept for Football Turf) irizpideak bete beharko ditu.

Proposamenetan, bertan jasotako zelai artifizialaren eta gainerako zoladura-osagaien modelo eta ezaugarriak adierazi beharko dira. Horrez gain, atal honetan puntuak eskuratzeko, ezinbestekoa izango da FIFAk homologaturiko laborategi baten Txostenak



Zenb./Núm.:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : asparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

aurkeztea, zeinak egiaztatuko duten proposaturiko zelai-sistemak FIFA 2 STAR (FIFA Quality Concept for Football Turf) irizpideen arabera ziurtagiria duela eta UNE 15330-1 araua betetzen duela.

Hobekuntza hau irizpide hauen arabera baloratuko da:

- Eskainitako materialaren ingurumen-iraunkortasuna, kontuan hartuta haren jatorria, kontserbatzeko beharrezko baliabide naturalak eta zelai-sistemaren osagaien izaera birziklagarria: **12 puntura bitarte.**

- Proiektuan jasotako belar-motaren kalitatearen hobekuntza (hariaren akabera, zuntzaren zabalera, hariaren pisua/loditasuna): **6 puntura bitarte.**

B.2. Egikaritze-proposamen tekniko: 16 puntura bitarte.

Atal hau baloratzeko, Txosten edo memoria tekniko bat aurkeztu beharko da, zeinetan zehaztuko diren egin beharreko jarduketak, horien sekuentzia, zelai artifiziala ezartzeko onarpen-irizpideak eta baloratu beharreko gainerako alderdiak.

- Obraren planteamendua eta garapena, erabili beharreko eraikuntza-metodoak, hornitzaileen deskribapena, hornitzaileen konpromiso-gutunak, enpresa azpikontratatistak, laguntzaileak, obrari atxikitako giza baliabide eta materialak: **6 puntura bitarte.**

- Obra-plangintza (obra-unitateen arabera). Proiektuan jasotako obren deskribapena oinarri: faseak, obra osoaren prozesua eta garapena, baldintza-orrian jasotako gehieneko gauzatze-epea betetzeko, inbertsioaren banakapena astean arabera, lizitazioko zenbatekoari erreferentzia eginda: **5 puntura bitarte.**

- Azterketa geotekniko homologatu bat egiteko konpromisoa, zimendatzea optimizatzeko xedez, eta plano topografiko/planimetrikoa: **5 puntura bitarte.**

B.3. Kirol-ekipamenduaren hobekuntza: 6 puntura bitarte.

Proposamenak osa daitezke izaera ekonomikoko betebeharrak gehiago norbere gain hartuta, proiektuan jasotako zelai artifizialarekin loturiko ekipamendu-partidei dagokienez. Ondoko kirol-ekipamendua baloratuko da:

- Markagailu elektronikoa, ezarpena barne.
- Baloiak gelditzeko sarea futbol-zelaiaren Hegoaldean, ezarpena barne.

Proposamenetan, eskainitako kirol-ekipamenduaren modeloak eta zenbatespen ekonomikoa adierazi beharko dira. Hobekuntza honen kuantifikazioa ondoko tarteetan arabera baloratuko da:

10.000,01 euro gehi BEZtik gorako hobekuntzen balio ekonomikoa eta ziurtatua: 6 puntu.



5.000,01 eta 10.000,00 euro gehi BEZ bitarteko hobekuntzen balio ekonomiko eta ziurtatua: 4 puntu.

18.- ESKAINTZAK EZOHIKO BALIOAK EDO GEHIEGIZKOAK DITUELA USTE IZATEKO IRIZPIDEAK

Hasiera batean, neurritz kanpokotzat edo ausartegitzat joko da bere beherapen-portzentajeak 10 portzentaje-puntu gainditzen duenean lizitazioa aurkezturiko eskaintza ekonomiko guztien batez besteko beherapenak, ez baitira bateragarritzat jotzen eskaintza nabarmenenak eta lanen egikaritze egokia.

19.- KONFIDENTZIALTASUNA.

Adjudikazioa iragartzeari eta hautagai eta lizitatzaillei eman beharreko informazioari buruzko urriaren 30eko 3/2011 Legearen xedapenek diotena baztertu gabe, eskaintzarekin igorritako informazioa sekretupekoa dela ebatzi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Kontratazio-organismoek ezin izango dute informazio hori zabaldu euren baimenik gabe.

Era berean, kontratistak kontratua gauzatzen ari den bitartean lortutako informazio konfidentziala errespetatu beharko du, baldintza-agirietan edo kontratuan informazioak isilpeko izaera badu. Gauza bera egingo da izaerarengatik tratamendu hori duen informazioarekin ere. Betebehar hori bost urtez mantenduko da informazioa ezagutzen den unetik, baldintza-agiriekin edo kontratuak epe luzeagoa xedatzen dutenean izan ezik.

20.- DOKUMENTAZIOAREN IREKIERA ETA ENPRESEN HAUTAKETA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako jarduketak burutuko dira:

1.- "A" gutun-azalaren irekiera eta dokumentazioaren kalifikazioa.

Behin Kontratazio Mahia "A" gutun-azaleko dokumentazioa baloratze aldera eratuta, aurkezturiko dokumentazioan zuzen daitekeen akats edo hutsunerik hautemango balitz, interesdunei jakinaraziko die posta elektronikoz edo interesdunak jakinarazpena jasotzen duela, jasotzen duen data eta jakinarazpenaren edukia frogatze dezakeen bestelako edozein bideren bitartez, eta hiru egun naturaleko epea emango die lizitatzaillei akatsak zuzendu edo argibideak edo agiri gehiago aurkez dezaten.

2.- Enpresen hautaketa.

Behin aurkezturiko dokumentazioa sailkaturik eta akatsak eta hutsuneak zuzendu eta gero, halakorik balego, baldintza-orri honen 15. klausulan azaltzen diren irizpideak zein



Zenb./Núm.:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

enpresak betetzen dituen zehaztuko du Mahaiak eta berariaz adieraziko du zeintzuk enpresa onartu dituen lizitaziorako, zein baztertu eta zergatik baztertu diren. Inguruabar horiek udalaren webgunearen kontratatzailearen profilean edo Udalaren Iragarki-taulan argitaratu ahalko dira.

3.- “B” gutun-azalaren jendaurreko irekiera.

“B” gutun-azalean aurkezturiko dokumentazioa, balio-judizioen arabera azter daitezken irizpideen baitan, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta laugarren egun baliodunean jendaurrean irekiko da, 10:00etan. Larunbata izango balitz, hurrengo egun baliodunean burutuko da. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango du.

4.- “C” gutun-azalaren jendaurreko irekiera.

"B" gutun-azalean zegoen dokumentazioa ireki eta balioetsi ostean, "C" gutun-azala irekiko da publikoki jendaurrean kontratatzailearen profilean adierazitako egun eta orduan. Dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, Mahaiak, gehienez, hiru egun balioduneko epea emango du horretarako.

Ekitaldi horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizioen menpeko irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

5.- Eskaintzen klasifikazioa eta esleipen-proposamena.

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkezturiko proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

SPKLTBren 152. artikuluan aurreikusten denez, balio anormal edo neurritz gainerakoren bat edo gehiago antzemandakoan, eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jo aurretik eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da.

Kasu horretan, lizitatzailleak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio esleipena, betiere, Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela jotzen bada.

Aitzitik, kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezingo dela burutu balore anormalak edo neurritz gainekoak sartu direlako, sailkapenetik baztertuko du eta sailkapen hurrenkeraren arabera proposamen ekonomiko onuragarrienaren aldeko esleipena erabakiko du.



Herriko Enparantza, l. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxes 945 314507
● *Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net*

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigor jaso behar diren aktetan jasota.

Kontratazio-mahaiaren esleipen-proposamenak ez dio proposaturiko enpresariari Administrazioarekiko eskubiderik ematen, harik eta kontratua formalizatzen den arte.

6.- Errekerimendua, hala badagokio, lehen sailkatuari.

Berriz ere Kontratazio Mahaia bilduta eta aztertuta balio-judizioen arabera azter daitezkeen irizpideak («B» gutun-azala) eta automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak («C» gutun-azala), Kontratazio Mahaiak proposatuko du kontratua esleitzea ekonomikoki onuragarriena den proposamena aurkeztu duen lizitatzailari.

Mahaiburu andreak ekonomikoki onuragarriena den proposamena aurkeztu duen lizitatzailari, errekerimendua hartu eta biharamunetik zenbatzen hasita, bost eguneko epea emango dio. Epe horretan, honakoa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du lizitatzailak: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 146.1. artikulua aipatzen dituen aurretiko baldintzak betetzen duela (dokumentazio horren hasierako ekarpenaren ordeztu lizitatzailaren erantzukizun adierazpena erabiltzen bada), zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta dituela edo kontratazio-organoari ziurtagiria zuzenean lortzeko baimena ematen diola, kontratua betetze aldera erabiliko eta esleitu zirela agindutako bitartekoak benetan dituela, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 64.2. artikulua arabera, eta kontratuen behin betiko bermea eratu duela.

Proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da Administrazioarekin kontratuak egin ahal izateko nahitaezko gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal izateko une erabakigarria.

Lizitatzailak Aldi Baterako Enpresa Elkartean aurkezten direnean, kontratua formalizatu aurretik osatzeko eskritura aurkeztu behar dute.

Errekerimendua ez bada aipatutako epean behar bezala betetzen, lizitatzailak eskaintza baztertu duela ulertuko da eta, kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailari, eskaintzen sailkapenaren arabera.

21.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio-organoak kontratua ekonomikoki onuragarriena den proposamena aurkezten duen lizitatzailari esleitu dio.

Esleipena aurreko klausulan aurreikusitako dokumentazioa jaso eta gehienez hurrengo bost egun balioduneko epean burutuko da, lizitatzaila guztiei jakinaraziko zaie eta Erakunde honen kontratatzaileen profileen argitaratuko da.



Zenb./Núm.:

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua jendaurrean aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean, gehienez ere bost egun baliodun, esleipendunak honakoa bete beharko du:

- a) Administrazio honetara etorri kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.
- b) Aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko publizitate ofizialeko gastuak ordaindu. Gastu horien zenbatekoa 350 € izango da, gehienez.

22.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Asparreneko Udaleko Alkatea edo haren eskuordetza duen zinegotzia.

Kideak: Udalean ordezkari duden alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat eta Udaleko Idazkari Kontu-hartzailea.

Idazkaria: Udaleko edo Aguraingo Kuadrillako Batzarreko funtzionario bat.

SPKLTBren 150.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Adituen Batzordea eratuko da, kalifikazio profesional egokia duten gutxienez hiru kidek osatua, eta kideen izendapena kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Batzordearen eginkizuna izango da balio-judizioen arabera azter daitezkeen irizpideak baloratzea.

Aipatu adituen batzordea honakoek osatuko dute: obren proiektua burutu duen arkitekto batek, udal arkitektoak eta udal arkitekto teknikoak.

23.- KONTRATUAREN ARDURADUNA, OBRA ZUZENDARITZA ETA OBRAREN ORDEZKARIA

Kontratazio-organoak pertsona bat izendatu ahal izango du kontratuaren ardura izateko, SPKLTBren 52. artikuluen arabera.

Kontratazio-organoak izendatzen duen obra-zuzendaria izango da kontraturiko obra behar bezala egiteko zuzendaritza, ikuskaritza, egiaztatze eta zaintza lanak egingo dituena. Obra-zuzendariak kontratazio-organoak izendatzen duen pertsonen laguntza jaso ahal izango du. Soilik zuzendariaren ardura izango da lanak proiektuaren arabera egikaritzen direla egiaztatzea, baita lanak egikaritu bitartean haien inguruko jarraibideak



Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

ematea. Zuzendaria ez dagoenean, berak izendaturiko laguntzaile teknikoak hura ordezkaturiko du ondorio guztietarako.

Kontratatzen obraren ordezkaria teknikari tituluduna izango da, eta egiaztaturiko esperientzia izango du kontratuaren xede den obraren antzeko obretan.

Kontratatzen obra zuzendaritzaren langile guztien eta, bere kasuan, kontratuaren arduradunaren gogoeta guztiak gorde eta gordearaziko ditu. Horiek une oro sartu ahal izango dira lan puntu eta material biltegitratze guztietara, aldeztuaz aurretik aztertzeko.

Obra-zuzendaritzaren eskura egongo da Azpikontratazio Liburua, Eraikuntzaren Sektorerako Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legearen 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

24.- ZUINKETAREN EGIAZTAPENA ETA LANEN PROGRAMA

Kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, gehienez ere hamar egun naturaleko epean egin beharko da zuinketa eta horri buruzko akta.

Esleipendunak lan-programa bat aurkeztu beharko du kontratazio-organoak onartu dezan. Programa kontratuaren formalizazioaren hurrengo zortzi egun naturaletan aurkeztu beharko da eta proposamenarekin aurkeztutakoa garatuko du, baina ezingo du kontratuko baldintza bat bera ere aldatu. Programa ikusita, kontratazio-organoak horren aplikazioari buruzko erabakia hartuko du eta kontratuari erantsiko zaio.

25.- LANEN SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Behin betiko esleipena jakinarazten denetik hamabost egun naturaleko epean kontratatzen laneko segurtasun- eta osasun-plana aurkeztuko dio kontratazio-organoari. Bost egun naturaleko epean jakinaraziko zaio onartu den edo ez.

Edozein kasutan, laneko segurtasun- eta osasun-plana onartzeko gehienezko epea hilabetekoa izango da kontratua sinatzen denetik. Aurreko paragrafoan ezarritako epeak beteko ez balitu kontratatzen, eta horregatik ezinezkoa balitz obrak hastea horretarako baimena emandakoan, kontratatzen ezingo du inolako luzapenik eskatu arrazoi horregatik.

26.- EPEAK

Kontratua egikaritzeko finkaturiko epe osoa betetzera behartuta dago esleipenduna, baita, hala dagokionean, finkaturiko epe partzialak betetzera ere. Epe horiek zuinketa egiaztatzeko akta sinatu ondorengo egunean hasiko dira kontratatzen esleipendunarentzat.

27.- KONTRATUA BURUTZEA



Zenb./Núm.:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

1.- Lanak burutzea.

Kontratastak edo berarentzat lan egiten duten langileek kontratua behar bezala betetzeko eragozpen edo traba izan daitezkeen egintzak edo omisioak eginez gero, kontratazio-organoak neurri zehatzak hartzeko eska diezaioke adostutakoa behar bezala betetzea lor dadin.

Obran zehar zuzendaritzak egokitzen jotzen dituen zuinketa partzialak burutu ahalko ditu. Zuinketa guztien akta jasoko da, lau kopiatan, dagozkien planoekin. Zuinketek eragindako material- eta langile-gastuak kontratistaren kontura izango dira. Kontratista obran egongo da hasieratik eta lanaldi osoan zehar.

Obra-zuzendariak kalak irekitzeko agindu ahalko du eraikuntzan gordeta dauden akatsak egon daitezkeela edo kalitate txarreko materialak erabili direla sumatzen badu. Horrelako akatsak daudela egiaztatuz gero, haiek aztertu eta konpontzetik eratorritako gastuak kontratistaren kontura izango dira. Bestela, zuzendaritzak kalak burutu eta konpontzeari dagokion kalte-ordaina ziurtatuko du, esleipen-aurrekontuko unitate-prezioan zenbatetsita.

Obra-zuzendariak, halaber, materialen eta obra-unitateen saiakuntzak eta azterketak egin daitezela eta kasu bakoitzean beharrekoak diren berariazko txostenak egin daitezela agindu ahalko du, eratorritako gastuak kontratatzailearen kontu izango direlarik.

Zuzendaritzak premiaz agindu ahalko du beharrezko lanak egikaritu daitezela berehalako arriskurik edo ustekabeko oztoporik ikusten bada. Kontratastak lan horiek egikaritu beharko ditu, obra-zuzendaritzak ondoren dagokion administrazio-izapidea sustatzeari kalterik egin gabe.

SPKLTBren 231.2. artikuluko ezinbesteko kasuetan jarraitu beharreko prozedura HAKLAOren 146. artikuluan ezarritakoa izango da.

Kontratuaren exekuzio-aldian sorturiko gorabeheren ebazpena kontraesanezko espediente bidez burutuko da, HAKLAOren 97. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratuaren exekuzio-aldian, obraren zuzendaritzak eta ikuskaritzak emandako eta derrigor bete beharreko jarraibideei jarraiki egikarituriko lanei eta material eta obra zaintzeari atxikitako erantzukizuna bere gain hartuko du esleipendunak.

2.- Obren zaintza eta seinaleztapena.

Kontratua gauzatu bitartean, esleipendunak hartuko ditu bere gain lanak egikaritzeko berezko ardurak, bai eta materialak zein obraren zuzendaritzak eta ikuskaritzak emanda nahitaez bete beharreko jarraibideen arabera egiten dituen obrak zaintzeko ardura ere.

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxes 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Kontratatik bere kontura ezarri beharko ditu obrako hesiak, obrarako sarrera adierazteko beharrezko seinaleak, lanak egingo diren eremuan zirkulazioa adieraztekoak eta, obrak nola doazen, arriskutsuak izan daitezkeen gunek adieraztekoak, bai eremu horretan, bai inguruan eta mugetan.

Kontratatik Zuzendaritza Fakultatiboak edo Segurtasun eta Osasun Koordinatzaileak idatziz helarazten dizkion aginduak bete beharko ditu, seinale osagarriak ezarri edo jada ezarritakoak aldatu beharri buruzkoak.

Seinaleztapenak eragiten dituen gastuak kontratistaren konturakoak izango dira.

Kontratista behartuta egongo da ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa segurtasun-baldintza nahikoetan mantentzera, eta berak izango du lurzoruaren eta espaloien egoera desegokiagatik edota obrako seinaleztapen, argiztapen edo balizatze kaskarragatik gerta litekeen edozein gertakariaren gaineko erantzukizuna.

Kontratatik uneoro mantenduko ditu bide-segurtasuneko baldintza normaletan jabetzarako sarbideak, ibilgailuenak zein oinezkoenak, eta bermatuko du, edozelan ere, larrialdi-ibilgailuak bertara sartu ahal izatea.

3. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa.

Kontratatik eraikuntza eta eraispenen babesaren eta haiek eragindako hondakinen arloan indarrean den araudia bete beharko du. Edonola ere, hondakinak kudeatu beharko dira otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren arabera, zeinak eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen dituen, bai eta Ingurumen eta Lurralde Politikarako Sailburuaren 2015eko urtarrilaren 12ko Aginduaren arabera ere, zeinak eraikuntza- eta eraispen-hondakinen balorizaziotik eratorritako agregakin birziklatuak erabiltzeko baldintzak ezartzen dituen.

4.- Burutze-baldintza bereziak.

Kontratu honetarako ezartzen dira ondoren adierazten diren burutze-baldintza bereziak, eta horiek funtsezko kontratu-betebehartzat joko dira. Baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, SPKLTBren 223, f) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.1. Kontratu burutzeko hizkuntza-baldintzak: Errotulu, argitalpen, seinale, jakinarazpen eta, oro har, solaskidetzan, euskararen erabilera bermatuta egon beharko du.

2.2. Ingurumen-baldintzak: Enpresa esleipendunak ezin izango du hiri-hondakinak eta/edo osasunerako kaltegarri izan litezkeen bestelakoak errausten duten zementu-fabrikek ekoiztutako zementurik erabili. Kontratatik zementuaren jatorria egiaztatuko duten emate-agiri edo ziurtagiriak aurkezteko betebeharra izango du.



Zenb./Núm.:

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

2.3. Obraren publizitateari buruzko baldintzak: Enpresa esleipendunak obraren kartel informatiboak egiteko, hornitzeko eta jartzeko betebeharra izango ditu, bere kontura, Arabako Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzak edo Espainako Futbol Federazioak emgando duten euskarriaren arabera. Kartela obratik hurbileko leku ikusgarrian egon beharko da obra burutu bitartean eta berau amaitu eta sei hilabetera arteko epean.

28.- ORDAINKETEN ARAUBIDEA

Kontratatari proiektuaren agirien arabera egindako obragatik baino ez zaio ordainduko baita, hala balitz, obra-zuzendariarengandik idatziz jasotako aginduen arabera egindakoagatik ere. Beraz, ezin izango da inolako erreklamaziotarako erabili proiektuan esleituta ez dauden obra eginen kopurua.

Egindako lanen neurketa obra-zuzendaritzak egingo du, eta kontratista bertan egon ahal izango da neurketa burutu bitartean. Neurri eta ezaugarriengatik gerora behin betiko estalita geratuko diren obra edo obra zatien kasuan, kontratistak behar besteko aurrerapenez ohartarazteko betebeharra dauka, zuzendaritzak dagozkion neurketak egin eta datuak har ditzan, obrak definituko dituen planoak egiteko, eta gerora kontratistak bere adostasuna izenpetu beharko du. Jakinarazpen aurreraturik ezean, kontratistak egin beharrekoa, Administrazioak erabakitakoa onartzeko betebeharra izango du.

Obra-mota bakoitzerako, proiektuaren neurketen azterketari dagokion epigrafean adierazitakoak hartuko dira neurri-unitate gisa. Obra-zuzendariak neurketa amaituta, egindako obraren balorazioari ekingo zaio, unitate bakoitzari aurrekontuari dagokion unitateko prezioa, edo dagokion kontrajarria, emango zaio, ordainketa ezberdinetarako baldintza-orrietan aurreikusitakoa kontuan hartuta: obra akastunengatik ordainketa, bildutako materiala, altxatutako partidak eta obran ipinitako lantaldearen konturako ordainketak

Balorazioaren emaitza jasotakoan, aurreko paragrafoan adierazi bezala egindakoa, lizitazioaren oinarriko aurrekontua osatzeko hartutako portzentajeak gehituko dira, eta jasotako emaitza hori esleipen-koefizientearekin biderkatuko da, hileroko erlazio baloratua lortzeko; horrek emango du hileroko egiaztapena, Administrazioak emango duena dagokion hilabetearen ondorengo hamar eguneko epean. Kontratistak, bere aldetik, dagokion faktura eman beharko du.

Ordainketaren atzerapenak hogeita hamar egun baino gehiagoko epean, egiaztapena onartzen den datatik zenbatuta, kontratistaren alde sortuko ditu berandutze-interesak eta kobratze-kostuengatik kalte-ordainketa, merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako terminoetan, SPKLTBren 216.4. artikuluan ezarritakori jarraiki.

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxa 945 314507
● [Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net](mailto:aasparrena.inaki@ayto.alava.net) ● Web.: www.asparrena.net

SPKLTBren 235.1. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, Administrazioak obra-ziurtagiriak onartu beharko ditu horiek eman eta hogeita hamar eguneko epearen barruan.

Edonola ere, ematen diren ziurtagiri partzialek eta kontratistari ordaintzen diren kopuruek ordainketa partzial izaera izango dute konturako ordainketa izaerarekin, eta horiek ez dute ekarriko inolako modutan obren onarpen eta harrera egitea, ezta egindako obren amaierako egiaztapenerako ere, zeina hiru hilabeteko epean egingo den, harreratik zenbatuta, eta kontratuaren kitapenaren kontura.

Aurrekontuan oroharreko prezioko gisa adierazitako partidak baldintza tekniko partikularren orrian adierazten den moduan ordainduko dira. Hala ez balitz, SPKLTBren 154. artikuluan ezarritakoaren arabera jokatu da. Oroharreko prezio itxian kontratatutako obra-unitateak hileru ordainduko dira, dagokion hilabeteen egindako obra exekutatuak gagozkion unitate edo obra-elementuaren osotasunak duen proportzio berean.

Kontratistak eskubidea izango du konturako ordainketak jasotzeko prestakuntza-eragiketengatik, hala nola obrari lotutako instalazioak eta material-bilketa edo makineria astuneko ekipamenduak. Horiek lortzeko, aldez aurreko eskaera egin beharko dio obra-zuzendaritzari, eta horrek onartu beharko du, araudiaren eta izaera orokorrarekin arau bitartez ezarritako mugen barruan, eta aipaturiko ordainketen aseguruia egin beharko du berme bidez.

29.- KONTRATUZKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEAGATIKO ZEHAPENAK

Obren exekuzioan atzerapena izango balitz, beti ere kontratistari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik eta horrek bere konpromisoak betetzeko prestutasuna adieraziko balu, kontratazio-organoak, gutxienez, galdutako denboraren erdiko epea emango du, ez bada kontratistak epe laburragoa eskatzen duela eta, kasu horretan, HAKLAOren 100. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko litzateke eskaera.

Kontratistak onartutako lan-programan jasotako epe osoan edota epe partzialetan atzerapena izango balu, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Administrazioak kontratua suntsiarazteko zein isunak ezartzeko aukera izango du, SPKLTBren 212. artikuluan zehaztutakoaren arabera (eguneroko zehapenak, 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko proportzioan).

Atzerapenagatiko zehapenak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak kontratuaren suntsiarazpenari ekiteko edo exekuzioa jarraitzeko ahalmena izango du, zehapen berriak ezarrita. Azken kasu horretan, kontratazio-organoak kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen duen epearen luzapena emango du.



Zenb./Núm.:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Era berean, Administrazioak eskumen berberak izango ditu epe partzialetako atzerapenek epe osoa betetzeko ezintasuna ekar lezakeela arrazoiz frogatuz gero.

Kontratastak kontratuan zehaztutako prestazioen exekuzio partziala betetzen ez badu, edo kontratuaren exekuzioaren betetze akastuna eginez gero, edo, hala balitz, kontratuaren exekuzioari behar adina bitarteko pertsonal eta material emateko konpromisoa hausten badu, Administrazioak kontratua suntsiarazteko ahalmena izango du, edota honako zehapenak ezartzekoa:

- Betetze akastunagatik. Betetze akastunagatik zehapenak ezarriko dira, honako kasu hauetan:

- Obren harreran horiek ez badaude jasotzeko moduan kontratastari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

- Arau orokor gisa, kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 1ekoa izango da zehapenaren zenbatekoa, salbu eta, kontratazio-organoaren iritziz eta behar bezala argudiatuz, arau-haustea larria edo oso larria bada, kasu horietan % 5ekoa edo legeak gehienez aurreikusitako % 10ekoa ere izan litezke zehapenak, hurrenez hurren. Araua behin baino gehiagotan haustea ere kontuan har liteke larritasuna zehazteko.

- Edozein kasutan, zehapenak ezartzeak ez du kontratasta akatsak konpontzeko betebeharretik salbuetsiko, legez dagokion heinean.

- Esleipen-irizpideak ez betetzeagatik. Kontratastari zehapenak ezarriko zaizkio esleipen-irizpideak ez betetzeagatik, honako kasu hauetan:

- Kontratua exekutatu bitartean edota harrera-unean, kontratastak eskaintzan bere egindako konpromiso bat edo batzuk bete ez dituela antzematen denean, kontratastari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bereziki kontratuaren exekuzioan erabili beharreko lan-eskuaren bolumenari dagokionez.

- Ez-betetzeak esleipen-irizpide bati eragiten diola joko da, kontratastak bete ez duen esleipen-irizpidean lortutako puntuaziotik % 25 kenduta, bere eskaintza ez litzatekeenean onena izango.

- Arau orokor gisa, kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 1ekoa izango da zehapenaren zenbatekoa, salbu eta, kontratazio-organoaren iritziz eta behar bezala argudiatuz, arau-haustea larria edo oso larria bada, kasu horietan % 5ekoa edo legeak gehienez aurreikusitako % 10ekoa ere izan litezke zehapenak, hurrenez hurren. Araua behin baino gehiagotan haustea ere kontuan har liteke larritasuna zehazteko.

Zehapenen aplikazio eta ordainketak ez du kentzen kontratastari egotz dakiokkeen atzerapenak eragindako kalte-galerengatik Administrazioak kalte-ordaina eskatzeko izan lezakeen eskubidea.



30.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratastak obraren exekuzioa partzialki azpikontratatu ahal izango du % 60ko mugaraino. Azpikontratazioa SPKLTBren 227. eta 228. artikuluetan ezarritakoaren arabera arautuko da, baita eraikuntza-sektorearen azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legean adierazten denaren arabera ere.

Kontratastak bere burua behartuko du azpikontratistei edota hornitzaileei hitzartutako prezioa ordaintzera, kontuan hartuta ordainketarako epeak ezin izango direla izan SPKLTBren 216.4. artikuluan, Administrazioaren eta kontratastaren arteko harremanetarakoan, aurreikusitakoak baino abantaila gutxiagokoak, eta azpikontratastak edota hornitzaileak emandako faktura kontratasta nagusiak onartzen duenetik zenbatuko dela, data eta dagokion epealdia adierazita.

Kontratastak SPKLTBren 227. artikuluan ezarritako azpikontratazio-baldintzak edo azpikontrataziorako ezarritako gehieneko muga errespetatzen ez baditu, edo azpikontratastaren gaitasuna ez bada egiaztatzen edo azpikontratazioa larrialdiko egoeratzat jotzea ahalbidetzen duten baldintzak egiaztatzen ez badira, kontratastari azpikontratuaren % 50 arteko zenbatekoaren zehapena ezarri ahal izango zaio, edozein kasutan.

Arau orokor gisa, kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 5ekoa izango da zehapenaren zenbatekoa, salbu eta, kontratazio-organoaren iritziz eta behar bezala argudiatuz, arau-haustea larria edo oso larria bada, kasu horietan % 10ekoa edo legeak gehienez aurreikusitako % 50ekoa ere izan litezke zehapenak, hurrenez hurren. Araua behin baino gehiagotan haustea ere kontuan har liteke larritasuna zehazteko.

31.- OBREN HARRERA

Kontratastak kontratua bete duela joko da berau osorik amaitzen duenean, horren baldintzen arabera eta Administrazioa asebeteta.

Obra amaitu eta hurrengo hilabetearen buruan, horren harrera egingo da prozedura formal bitartez.

Harrera-unean, kontratastak honako betebeharrak ase dituela egiaztatuko da bereziki:

Obraren amaierako garbiketa. Kontratastak hasierako egoeran utzi behar ditu obrak eragindako eta okupatu ez dituen eremuak.

Kontratua akatsik gabe bete izana.

Esleipen-irizpideak bete izana.

Egikaritze-baldintzak bete izana.



Zenb./Núm.:

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : asparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

Obrak egoera onean baleude eta ezarritako aginduen arabera, kontratuaren arduradunak edo, ahal balitz, Administrazioak izendatutako ordezkariak hartutzat joko ditu, dagokion akta eginda, lau kopiatan, eta hori izenpetu beharko dute harreran egon direnek. Orduan hasiko litzateke berme-epea.

Kontratatik obraren harrera joateko betebeharra dauka. Berari egoztekoak ez diren arrazoiengatik betebeharrak hori beteko ez balu, kontratuaren arduradunak edota Administrazioak izendatutako ordezkariak aktaren ale bat igorriko lioke, hamar eguneko epean egokitzen dituen alegazioak aurkez ditzan. Horiei buruz, kontratazio-organoak emango du ebazpena.

Obrak ez baleude harrera egiteko moduan, halaxe jasoko da aktan, eta obraren zuzendariak adieraziko ditu beharrezko akatsak eta beharrezko jarraibideak emango ditu horiek konpontzeko, emandako epean. Epe hori amaituta kontratatik konponduko ez balitu, beste epe luzaezin bat emango litzaiolke edota kontratua suntsiaraziko litzateke, kontratatari egotz lekizkiokkeen arrazoiengatik.

32.- KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBren 85., 223. eta 237. artikuluetan jasotakoak, baita honakoak ere:

- Administrazioarekin kontratatzeke betebeharren bat-bateko galera.
- Azpikontratazio-arloan ezarritako mugak ez betetzea, hala balitz, ezar daitezkeen zigoren kalterik gabe, 30. klausulan ezarritakoaren arabera.
- Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenak eragozteak.
- Kontratatik kontratuaren helburu diren eta horren ondorioz ezagutu dituen datu edo aurrekariak dagokienez, publiko eta nabarmenak ez direnean, gorde beharreko isilpekotasun-betebeharra ez betetzea.

Kontratuaren suntsiarazpena kontratazio-organoak erabakiko du ofizioz edota kontratatik hala eskatuta, hala balitz, izapidetutako prozeduran SPKLTBren 109. artikuluan ezarritako arauen arabera.

Kontratatik errozkiko ez-betetzeagatik suntsiaraziz gero, kontratatik ordaindu beharko litzaiolke Administrazioari eragindako kalte-galerak. Kalte-ordaina bermearen arabera emango da, hartutako zenbatekoa gaintzen duen zenbatekoari dagokienez kontratatik ardurari kalterik eragin gabe.

Suntsiarazpen-arrazoiak aplikatzeko, SPKLTBren 224. eta HAKLAOren 110. artikuluen menpe jokatuko da eta, eraginetarako, SPKLTBren 225. eta 239. artikuluen arabera.

ASPARREneko Udala
ARAIA (Araba)



Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, I. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

33.- BERME EPEALDIA

Berme-epealdia harrera-egunetik zenbatzen hasiko da eta bost urtekoa izango da. Berme-epealdia bitarteko mantentze- eta zaintza-gastuak kontratistak hartuko ditu bere gain.

Berme-epealdian bitarteko kontserbazio-, mantentze- eta zaintza-gastuak kontratistaren konturakoak izango dira, eta antzemandako akats guztiez arduratuko da.

Epealdi horretan, kontratista arduratuko da, edonola ere, obren kontserbazioaz eta zaintzaz, eta betebeharrak zehatza izango du berme-epealdi osoan mantentze espezializatua egiteko, zelai artifizialezko eremuen mantentze-zerbitzua emateko jarduerarako gaituriko kalitatezko enpresa baten bitartez. Administrazioaren ustez kontserbazioa ez balu behar bezala egingo, obra arriskuan jarrita, hark egingo ditu, kontratistaren kontura, kaltea saihesteko beharrezko lanak.

Berme-epealdian kontratuaren xede diren obren kontserbazioak eragindako gastu guztiak kontratistaren konturakoak izango dira, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango horregatik. Salbuetsita daude ezinbestekak eragindako kalteak, horiek Udalak hartuko ditu bere gain.

Berme-epea bete baino hamabost egun lehenago, lanen zuzendari fakultatiboak lanen egoerari buruzko txostena emango du, ofizioz edo kontratista hala eskatuta. Txostena aldekoa balitz, kontratistaren ardurak amaituko lirateke, SPKLTBren 236. artikuluan ezarritakoa izan ezik, eta bermea bertan behera geratuko litzateke edota horren kitapenari ekingo litzaioke, baita kontratuaren kitapenari eta, hala balitz, ordaintzeke dauden zorrak ordaintzeari ere, hirurogei eguneko epean. Txostena aldekoa ez balitz eta beharrezko akatsak exekuzioaren hutsegiteengatik balira eta ez eraikitakoa erabili izanagatik, zuzendariak berme-epean beharrezko jarraibideak emango dizkio kontratistari eraikitakoa behar bezala konpon dezan, eta horretarako epe bat emango dio, zeina bitartean lanaren zaintza bere gain jarraituko lukeen, berme-epea luzatzeagatik inolako kopururik jasotzeko eskubiderik gabe.

Edonola ere, berme-epea igarota, txostena aldekoa balitz edota, hala ez balitz, behin eraikitakoa konponduta, lanen zuzendariak benetan exekutatuak izan diren lanen kitapenaren proposamena egingo luke hilabeteko epean, eta kontratistari jakinaraziko litzaioke hamar eguneko epean adostasuna adieraz dezan edo egokitzen jotzen dituen eragozpenak azal ditzan. Bi hilabeteko epean, kontratistaren erantzunetik edo horretarako ezarritako hamar eguneko epea iraungitzez zenbatuta, kontratazio-organoak kitapena onartu beharko luke eta, hala balitz, horren emaitza litzatekeen zenbatekoa ordaindu.

Kontratuaren kitapena onartuta, behin betiko epean egikaritu beharreko erantzukizunik izan ezean, eta lanen berme-epea igarota, bermearen itzulketari edo bertan behera uzteari ekingo litzaioke.



Zenb./Núm.:

ASPARRENEko Udala
ARAIA (Araba)

Ayuntamiento de ASPARRENA
ARAIA (Alava)

Herriko Enparantza, 1. ● P.K. 01250 ● C.I.F. P-0101000-H ● 945 304006 ● Faxe 945 314507
● Elektronikoa. : aasparrena.inaki@ayto.alava.net ● Web.: www.asparrena.net

34.- EZKUTUKO AKATSENGATIKO ERANTZUKIZUNA

Esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du hamabost urtean, obrak bere esku utzi zirenetik kontatzen hasita.

Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik izan ez bada, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

35.- JURISDIKZIOA

Kontratuak indarrean dirauen artean, beraren interpretazioari, aldaketei, ondoreei eta iraungipenari dagokienez gertatzen diren kontu guztien gaineko ebazpenak hartzeko eskumena dauka kontratazio-organoak, legean adierazita dauden mugen barruan eta legearen betekizunen arabera. Kontratua amaitzeko hartutako erabakiek administrazio-bidea amaituko dute, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren bitartez aurkaratu ahal izango dira.

Kontratazio-organoaren egintzak berehala betearaztekoak izango dira, eta administrazio-bidea agortuko dute. Aukerako berraztertze-errekurtsua jarri ahalko da horrelako ebazpenen aurka, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunean zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahalko dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

----000----

JOSÉ IGNACIO GOENAGA GARRALDA JAUNAK, ASPARRENEKO UDALEKO (ARABA) IDAZKARIAK:

ZIURTATZEN DUT: ARAIAN FUTBOL ZELAI BAT ERAIKITZEKO obrak kontratatzeko Baldintza ekonomiko-administratibo partikularren orri hau Asparreneko Udaleko Osoko Bilkurak onartu duela, 2017ko irailaren 11ko ezohiko saioan.

Eta hala jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, idazki hau egin dut Alkate-Presidente andreak aginduta eta beraren oniritziarekin, Araian, 2017ko irailaren 12an.

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA